

QUALITY FOODS



Zure janaria, inoiz baino hurbilago eta naturalagoa.

Leire Flores, Erika Osetsky, Aner Gamiz eta Oier Ezpeleta



AURKIBIDEA

0. GURE IDEIA

1. BALIO PROPOSAMENA

2. BEZEROEN SEGMENTAZIOA

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

4. IRABAZI ITURRIAK

5. KANALAK

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

7. BALIABIDEAK

8. JARDUERAK

9. KOSTUAK



0. ATALA: GURE IDEIA

Gure enpresan, **Quality Foods**, gaur egun supermerkatuek eskaintzen dituzten produktuen kalitateaz kezkatuta gaude, zer nolako frutak eta barazkiak saltzen dituzten ez zaigu egokia iruditzen, hainbat fabriketatik pasatu dira eta ez dira oso osasuntsuak.

Supermerkatu batera joaten bagara, ikusiko dugu produktu freskoak hainbat aste irauten dutela itxura onarekin; honek, **elikagai prozesatuak** direla adierazten digu eta guk hau ekidin nahi dugu, beraz ideia ona iruditu zitzaigun negozio idea hau sortzea.

Gure enpresaren izenarekin zer nolako janaria eskaintzen dugun eta dituen ezaugarriak zeintzuk diren adierazi nahi dugu, nekazariak landutakoa eta prozesatu gabe, **kalitatezkoa**; eta hau logoarekin adierazten ere saiatu gara, landutako produktuak saltzen dira fabrika batetik pasa gabe, osasuntsuagoa eta eskuz landua, horregatik eskuaren irudia landare bat eusten.

